



24. zEnbakiA  
GoRa Euskal iRRiA!

Atal honetako azalean, ezaguna egiten zaigun neskatoa dugu barrez, irri algara baten! Marikalanbre da, bai!!! Eskuak zabaldurik eta pozik dagoela dirudi, ezta? Zergatik uste duzue dagoela, ba, pozik?

Aldizkariaren ale honetan, **irriaren** inguruan jardungo dugu. Orain arte, gure lagunen izaeraren parte den irria, barrea, algara... irudi bidez edo hitzetan islaturik aurkitu izan ditugu. Hala ere, ez gara sekula jarri pentsatzen irriaren inguruan...

Bada, oraingoan irriaren inguruan arituko gara! Ale hau irakurtzearekin batera, irriak barnean daraman mundu zoragarria ikusaraziko diozu zure haurtxoari!

Hasteko prest?

## 0. AZALA

Zure haurra aldizkarira gerturatzeko, honako hau egitea proposatzen dizugu! Ea, ba, lortzen duzun gure laguntza txiki honen bidez haurra irrira gerturatzea,

- Hartu aldizkaria esku artean, eta, haurra inguruan duzula, azalera begira jarri eta hasi barrez.
- Haurra gerturatzen bazaizu, eta zer gertatzen zaizun galdetzen badizu, esan honako hau:
- *Marikalanbre barrezka ikusi dut, eta neuri ere barregura sartu zait!*
- *Begiratu zertan dabilen! Ja ja! Zer uste duzu gertatzen zaiola barrez aritzeko?*
- *Bera bakarrik al dago barrezka? Zer gertatuko zaie, ba, besteei?*
- ...



24. zEnbakiA  
GoRa EusKaL iRRiA!

Jarraian, galdetu ea zer jartzen duen goiko gongoiltxoan, eta pentsa dezala ea zer esan nahiko duen bertan adierazten denak. Ea zer bururatzen zaion... Gero, zuk zeuk azaldu euskal irria Euskal Herriaren oso antzekoa dela... Euskaldunok irri bereziren bat dugula uste baduzu, zuk zeuk azaldu zergatik... Nahi duzuna adieraz diezaiokezu...

Ondo pasa! Hori da-eta gure lehen eta oinarrizko helburua!

## 1. HAZI HEZI

*Hazi Hezi* aldizkariaren atala irakurtzea ere proposatzen dizugu. Aldizkari honek alor ezberdin eta interesgarri askoak jorratzen ditu, bai zuk zeuk bakarrik irakurri eta lantzeko modukoak, eta bai haurrari zuk irakurtzen duzun hori gerturatzeko modukoak.

Ale honetan, hainbat gai landu dituzte, hala nola sormena, jolasak, haurrentzako egokia den herria guztiontzako herri egokia... Ikusten duzuen moduan, aberasgarriak dira haurrarekin konpartitzeko.

Baina nola gerturatu horiek haurrari?

Bada, guk bi aukera proposatzen dizkizugu:

1. Aldizkaria bera erosteal!

2. Orri honetan bertan, agertzen zaizkizun gaien inguruan, zuk zeuk haurrari gauzak galdetzea, gaien inguruan zuk dituzun ideiak berari helaraztea, haurra gaietara gerturatzea...

Mimoz eta goxotasunez errazago barneratzen da dena; beraz, eman haurrari informazioa afektibotasunez! Gozatu eta konpartitu!



24. ZENbakia  
GoRa Euskal iRRia!

## 2. AURKIBIDEA

Hartu aurkibidea, eta ez ahaztu bertan aurkitzen den informazioak ondoren aurkituko

dugun horren pista ezin hobe emango digula! Adierazi haurrari aurkibidearen atalak aldizkariaren beste atalen garrantzi bera duela!

Hori horrela, bertan den igelean oinarrituko gara, haurrak aurkibidea landu dezan. Beraz, igelari begira zaudetelarik, egin ieazkiozu galdera batzuk: Zer gertatzen zaio igelari? Zuri gustatzen zaizu barre egitea? Noiz egiten duzu barre? Zure ustez, zeri egingo zaio erreferentzia aldizkarian?

## 3. PUPU ETA LORE

Pupu eta Loreren olerkiak izugarri politak izateaz gain, dibertigarriak dira oso; ez dute, ez, ezer galtzeko!

Hona hemen olerkiekin egiteko proposatzen dizueguna:

- Haurrari proposatu olerki bakoitzean gure hurrek egiten duten gauza bera egitea, eta gero bion artean irakurri olerkia, bai?

Ea ba! Hasi jolasean! Eta ez ahaztu jolasa bide aproposa dela haurra irakurzaletzeko!



24. ZENbakia  
GoRa Euskal iRRiA!

#### 4. PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS

Zein ederra den gogo biziz barre egitea, ezta? Oraingo honetan, Pirritx eta Porrotx haserretu egin dira barrea dela eta. Hezitzaile garen oro, aukera bikaina eskaintzen zaigu gure haurra ezagutzeko. Gure proposamena irakurketa pausatua gauzatzea da. Hau da, irakurraldian lau geldialdi egingo dira: orrialde bat, geldialdi bat. Tarte hauetan zenbait galdera partekatuko ditugu:

- ❖ **1. geldialdian:** Zure ustez, norbait erortzean barre egin behar al da? Barre egiten badiogu, ondo sentituko da? Zu eroriko bazina eta nik barre egingo banizu, haserretu egingo zinateke, Porrotx bezala?
- ❖ **2. geldialdia:** Porrotxek dio ezin dela beti barre egin; zuk zer diozu? Zure ustez, gauza bera da kontentu edo txoro egotea?
- ❖ **3. geldialdia:** Beti berdinean egiten al dugu barre?
- ❖ **4. geldialdia:** Nola egiten duzu barre, gaizto zaudenean? Txoro zaudenean? Eta harro zaudenean?



24. zEnbakiA  
GoRa Euskal iRRiA!

## 5. OSASUNA GURE ONDASUNA

Gure lagun Tiritaxoren aholkuak jarraitzeko prest? Oraingoan, hortzak garbitzearen inguruan kontzientziaztera datorkigu gure medikua; beraz adi irakurri haren aholkuak!

Gure proposamena:

- Haurrari lasai irakurri Tiritaxoren aholkuak.
- Gero, galdetu berak berriz irakurri nahi duen zuk irakurritakoa
- Jarraian, galdetu honako hauek:
  - *Zein aholku ematen dizkigu Tiritaxok?*
  - *Zuk betetzen al duzu hark esandakoa?*
  - *Zer da horrenbeste jan behar ez dena?*
  - *Zergatik ez ote da horrenbeste azukre jan behar?*

Atal hau amaitzeko, proposatzen dizugu herriko supermerkatura joatea eta haurrari hortzak garbitzeko nahi duen pasta eta eskuila erosteak!

## 6. MARTIN BERTSO

Litekeena da haurrak ez ulertzea Martin Bertsok komikian esaten dituen zenbait ideia. Horregatik, lagundu egingo diogu haurrari irakurtzen, eta, amaitzeko, galdera batzuk konpartitzea proposatzen dugu, komikia ondo ulertzeko:

- ☐ *“Triste ez dadin ibili, egin hitzekin kili-kili” Zer esan nahi zuen ideia horrekin?*
- ☐ *“Erabili irudimena, ezer ez da dirudiena” Zuk ulertu duzu zer esan nahi zuen?*
- ☐ *“Zorion uboldea! Sor dezagun mundu hobea!” Eta ideia honek zer esan nahi du?*



24. zEnbakiA  
GoRa Euskal iRRiA!

## 7. FILOSOFO TXIKIAK

Filosofoen atala irakurtzeko, haurari proposatu bertan adierazten dena irakurtzea, eta, ondoren, ulertu duen galdetu. Ulertu badu, hau egin dezakezu:

- Fotokopiatu komikia; baina fotokopiatu aurretik, gongoiltxoak estali, gero fotokopia egitean hutsik ager daitezen.
- Eman fotokopiak komikiarekin, eta esan bion artean istorio berri bat idatziko duzuela.
- Haurari zer egin behar duzuen azaltzean, esan garrantzitsua dela irria sortzeko egoerak proposatzea, gure lagunek irri egin dezaten!

Ea irriarekin loturiko zein ideia bururatzen zaizkion!

## 8. BARRITSU

Gure lagun berria ezagutu nahi duzu? Barritsu dugu irriaren aldizkariarekin hemendik aurrera gurekin jardungo den mutiko berria! Beraz, zure haurrak gure laguna ezagutuz joateko zera proposatzen dizugu:

- Hauraren aurrean jarri orria. eta mutikoaren inguruan esan:
- *Lagun berria dugu aldizkarian! Zein izen du gure lagun berriak?*
- Irakur dezala haren izena.
- Gero, galdetu iezaiozu ea zer dioten haren inguruan dauden gure lagunek, eta horretarako irakur dezala gongoiltxoetan ageri dena.
- Jarraian, galdetu ea ulertu duen azken bi gongoiltxoetan gure lagunek diotena:
- *“Ekin eta ekin, enskaraz eta enskararekin!”*



24. ZENbakia  
GoRa EuskaL iRRiA!

- *Zer esan nahi ote dute horrekin?*
- *Zein da 'ekin' hitzaren esanahia?*
- *Euskaraz ekiten badiogu, zer egiten dugu, beraz?*
- ...

Atal hau amaitzeko, esaldi hau, **“EKIN ETA EKIN, EUSKARAZ ETA EUSKARAREKIN!”**, kartoi mehe batean idaztea eta gero hura margotzea proposatzen dizuegu. Margotu ondoren, nahi duzuen lekuan itsatsi ahal izango duzue! Eman bide askea irudimenari, eta izan sortzaile, lagunok!

## 9. POSTERRA

Posterra ere amaieran nahi duzuen tokian itsatsi ahal izango duzue! Jada poster pila izango duzue etxean, logelan, karpetan, ezta? Bada, hau ere, horretarako erabil ahal izango duzue.

Dena dela, itsatsi aurretik, zera proposatzen dizuegu:

Poster honetan irudi batzuk eta ekintza batzuk ageri direla ikus dezakezue; bada, egin beharko duzuen (bion artean edo berak bakarrik nahi izanez gero) posterrean ageri den horren inguruko ipuintxo bat sortzea izango da.

Ipuina orri txikitxo batean idatzi beharko duzue, orri polita eta kolorez beterikoa, ahal izanez gero. Ipuina amaitu ondoren, posterra itsasten duzuen tokian, ondoan jarriko duzue ipuintxoa ere.

Hala ere, gure proposamen hutsa da, eta ideia interesgarriagoak otuko zaizkizuela badakigu; beraz, egin benetan sentitzen duzuen hori!



24. ZENBAKIA  
GORA EUSKAL iRRiA!

## 10. OLIBATXO

Olibatxoren atala haurrari utzi irakurtzen. Irakurtzen amaitzean, egin ondorengo galderak:

- *Zer eramaten dute gure haurtxoek eskolara?*
- *Zergatik eramaten dituzte botilatxoak eskolara?*
- *Gure eskoletan badugu horrelakorik?*
- *Egon beharko litzatekeela uste al duzu? Zergatik?*
- ...

## 11. MARIKALANBRE

A zein istorio polita kontatzen diguten orain ere gure lagun Marikalanbrearen komikian! Irakurri nahi duzu? Polita da benetan!

Hauxe proposatzen dizugu:

Zuk zeuk irakurri haurrari komikia, eta, irakurtzen diharduzun bitartean, haurrak esku bidez seinalatu beharko du gertatzen ari den ekintza hori. Adi-adi ariko da irakurtzen, seguru!

Amaitzean, zera galde diezaiokezu haurrari:

- *Zergatik dago Marikalanbre pozik hasieran?*
- *Zer egin dezake robotak?*
- *Eta ezin dezake egin?*
- *Zergatik harritzen da Marikalanbre?*
- *Zer egiten du neskak robotak barre egin dezan?*
- *Azkenean, zer da egiten du robotak? Zergatik?*



24. ZENbAKia  
GoRa Euskal iRRia!

## 12. ZENBATAK

Ez al da egia askotan barrea kutsakorra dela? Ea lortzen duzuen zuek ere zuen haurra barrez bustitzea! Irakur ezazu lasai-lasai ipuina, eta amaieran hasi zaitez barre-algaraka; atera barrutik zure barre zoroa! ANIMATU!

Gogoan izan momentu dibertigarriak guztiz baliagarriak direla zerbaitekiko motibazioa eta nahia sustatzeko.

## 13. DOZENAN 13

Aukera bikaina, irakurketa lasai eta patxadatsua gauzatzeko. Hartu ipuina oheratzeko momentu goxoan edo eguneko momenturik lasaienean, lasai-lasai leku patxadatsu batean zaudetela, adibidez ohe gainean, eta irakur iezaiozu haurrari ipuina.

Ez ahaztu haurraren erreferente garela; beraz, irakurri zuk dakizun moduan (ikurrak errespetatu, tonu ezberdinak erabili, ahazkotasuna...).

## 14. LAGUN

Animatu zaitezte eta joan zaitezte gertuko jolastoki, zelai, belardi batera eta erakutsi haurrari asko direla irakurtzeko leku egokiak.



24. zEnbakiA  
GoRa Euskal iRRiA!

## 15. LARGABISTA

Erakutsi haurrari elorria nolakoa den; ziur gaude etxetik gertu izango duzula. Elorria erakutsi ostean, banandu pertsonaiak bi helduren artean, eta animatu antzerki txiki bat egitera, zuen haurren aurrean.

Zergatik proposamen hau? Askotan, denbora falta, gogo falta edo egunak dakarren nekea dela eta, alde batera uzten ditugu gure hurrekin ondo pasatzeko tarteak, eta, hori gutxi balitz bezaa, tarte horiek daudenean, partaideak ez dira asko izaten. Eman tarte zuei eta zuen hurrei.

Ez ahaztu bizitza gozatzeko dela! Askotan, ahalegina egitetik plazerera salto txikia egoten da!

Oso ondo pasatuko dute, eta barrea aurpegitik kendu ezinik ibiliko dira!

## 16. MUNDUAK GUZTIONTZAT BEHARKO LUKE

Konpartitu irakurketa. Jarraian, marraztu orri batean txakur bat; horrekin batera, txakurrak ekar ditzakeen onurak idatziko ditugu. Bitarte horretan konpartitu galdera batzuk, irakurritakoaren inguruan:

- Zuri gustatuko litzaizuke txakur batek laguntzea?
- Zertan laguntzen dio txakurrak mutikoari?
- Txakurrak maiteko ote du mutikoa, edo txakurrek ezin dute maite pertsona bat?



24. zEnbakiA  
GoRa Euskal iRRiA!

## 17. BERRIAK 10 URTE

Ziur asko, haurrak ez du jakingo Berria zer den. Azaldu eta erakutsi egin diezaiokezu. Ez pentsatu helduentzako bakarrik denik! Ez, ez!

Zenbat aldiz konpartitu duzue egunkaria zuen haurrekin? Askotan iruditzen zaigu egunkaria helduentzako bakarrik dela, ezta? Ahaztu horrekin, eta hasi noizean behin haurrarekin egunkaria partekatzen, ados? Horretarako, guk orain arte emaniko estrategiak erabil ditzakezue, haurra erakarri eta motibatzeko!